

MARIREKIN SOLASEAN

Egun arrunt bat zen eta museora joatea erabaki nuen. Han makina bat kultur ezberdineko irudi adierazgarri nahasturik aurkitzeko ingurune aproposa dugu. Babeleko dorrearen antzera, elkarturik o topa daitezke bai espazioan eta bai denboran zeharo urrun jaio diren kulturen ondareak, gizarte bakoitzaren ezau-garri bereizgarriei jaramonik egin gabe.

Hainbeste irudiren artean, Mariren eskultura zoragarri bat aurkitu nuen. Bere esku-bian Hiroshiman amerikarrek jaurti zuten bonba atomikoak eztanda egin zuen unean ateratako argazki bat, eta ezkerrean Erdi Aroko ezpata bat. Mari goibel zegoen. Salba nazazu, arren! esan zidan malko garatz bat eroritzen zitzaion bitartean. Ikuspegi honek hasiera batetan txundituta utzi ninduen baina berehala elkarrizketari ekin nion:



*"Magia
negra"
Magritte*

Kaixo Mari, zergatik zaude kopetilun?

- Nola esan dezakezu hori? Bistan dago, zuek gizakiak antzinako ideiak ahazten jaioko zaretela, eta ez zaizuela ajola kondairan zehar egon diren herriek lagatu duten kultur ekarpenik edo beste gizarte garaikideek sortutako munduen etorkizuna.

- Ez zaitut ulertzen andere, zer dela eta esaten didazu halako egozpena?

- Jakina, ulertzen ez duzulakoan nago, bestela museo batera ez zinen etorriko.

- Dena gizon, dena, museo batean gizarte ezberdinen lekukoak daude, baina denak nahastuta eta bere jatorritik eta sustraiatik erbestera. Zer zentzu dauka nik Erdi Aroko ezpata baten ondoan egoteak, eta are gutxiago Bigarren Gerrate Mundialan amaieran gertatu zen gertakari tamalgarri harekin? Niretzat argazki honen ondoan egotea irain bat da. Nik adierazten duten mundua, bonba atomikek irudikatzen duen mundu ikuspegia oso bestelakoa da, gehiago esango nuke erabat kontrajarriak dira. Errespeto falta handi bat dela diotsut. Edifizio batean gizakiak egin dituen aurkikuntza eta berrikuntza guztiak elkartzea, nahiz eta sailkatua antolatu, gizarte bakoitzak osatu duen errealitatea murriztea eta aldatzea iruditzen zait.

- Beno beno, horrela bada, zergatik ez didazu zu sortu zintuen gizakiaren irudikapen eta azalpen labur baina mamitsu bat esaten?

- Kontuz gero, giza kolektibo bat bizitzeko sortu duen gizarte inoiz ezin da laburpen baten bidez azaldu. Alegia ez litzateke nahikoa izango azterketa sakon bat egitea, bakarrik gizarte sortu zuen ingurune berdinen biziz jakingo genuke zehatz mehatz nolako sistema zeukaten.

- Tira, ez jarri hain filosofo, zeren azken finean zu mito soil bat bakarrik zara.

- Gizajoa, zure gizarte zoragarri honek, edo edozein mendebaldeko gizarte aurrera-koiak, mitoak ez daukazuelakoan zaudete. Gizonak bere errealitatea mitoen bidez apaintzen du. Gizakiak beti eredu bilakatu, zeren mitoak azken finean giza orekaren euskarri modura jokatzen du, pertsonaren mugatasunaz ahazteko edo gainditzeko tresna besterik ez da. Mito horiek imitatuz irudizko arlo batean, berezko nortasuna gainditzen da. Egunerokotasunaren inertzia bizitasunaz argitzeko mitoak beharrezko bilakatzen dira.

- Zientzilarien azkeneko aurkikuntzak berriro erlijioa eta zientzia elkartzen hasi dira, unibertsoaren zirrikitu guztietan orden bat ikusten baitute. Alegia arrazoi bat aurkitzen dela Kosmoan gertatzen diren gertakari guztientzat, pentsatzekoa halmena duen ente bat bezela irudikatzen dutela. Arrazonamendua, eta bost zentzuen bidez sortutako errepresentazioa, gizakiaren kanpo dagoen munduan berdina dela ziurtatzea beha-

rrezko mito bat da. Unibertsoaren antropomorfizazioaren aurpegi berri baten aurrean aurkitzen gara.

Demokrazia, berdintasuna eta giza duintasunaren inguruan sortu den mendebaldeko zibilizazio honetan eraikitzeke garaian, Jesusen jarduera eta pentsamoldea eskuratu ditu eredu bezela.

Azken finean, antzinako kristau balore horiek eta psikologia modernoak jorratzen dituen jokabide ereduak, oso antzekoak dira.

Nere sortzaileak berriz, Naturaren izatearen azpian izpiritu anitzen jardueran ispilua besterik ez dela uste zuten. Alegia gauza guztiak mugitzen zituena izpirituak zirela, eta haien artean nagusienetakoak arbasoak zirela. Ingurune guztiaren bizitza arimaren ekintzen bidez burutzen zen.

- *Beraz zure gizartea gaurkoa baino askoz atzeratuagoa zegoen.*

- Ez uste, ohartu behar zara gizarte bakoitzaren mundu ikuspegian hizkuntzaren eraginkortasuna oso garrantzitsua dela. Garai batean bakarrik izakiak eta natur ingurunean ikusi entzun edo ikuitu egin zitezkeen gertakariak eta gauzak zirela kosmobi-sioa bat sortzerako unean abiapuntu bakarra. Gaur berriz, hitz askok teknika eta ekonomian daukate berezko jatorria, eta horiek suposatzen du zuek sortzen duzuen errealitatea teknika eta ekonomiak baldintzatzen dituela. Beraz zuek mundua ezagutzeko modua aurreneko gizarteak sortu dituzten errealitateak baino hobea dela harrokeria hutsa delakoan nago. Gizarte bakoitza ezagutzen duenaren esklabu da.

Kontuan hartzen badugu Naturari behar diogun begirunea, antzinako gizarteak gaurkoa baino askoz aurreratuago zeuden izadiarekin lotura mantendu zutelako. Gaurko gizakia, ordea, naturatik aldendu egin da, gauza eta makina kontzeptoen inguruan sortu den ikuspegi mekanikoa, eragin izugarria dela eta. Guk ingurunea izaki bizi sakratu baten antzera ikusten genuen eta gizona bere zati sakratu bat besterik ez zen beraz abereekin eta naturako beste edozerekin elkartuta zegoen. Ekolojiak, naturarekiko maitasuna bereskuratzeko jabetze lanetan ari da, gizakia naturaren zati bat dela azalduz. Eta gaurko zibilizazioaren etorkizuna naturaren errespetoan dagoela azpimarratzen du.

Gizaki modernoaren mito mekanikoen naturatik ezezik gizonaren izpirituatik ere aldendu du, gehiago esango nuke gizonaren gizatasuna arlo garrantzitsu bat galtzeko zorian utzi du. Natura, eta Gizakiaren ezaugarri bereizgarriena beti elkarrekin joan dira. Gauzak asmatzen hasi zenean hasi zen urruntzen naturatik, eta ohartu orduko izpiritua ere ahaztuta zeukan. Mekanizazioak, kondairaren norabidea Arrazionalismora bultzatu du, beste gizatasunen ezaugarriak baztertuz. Artea, Erljioa, Literatura, e boluzio honetan galtzaileak izandu dira. Gizona, sentimenduak gainditzeko grina honetan, autoalienatzen iritsi da, zeren dibinitatea eta naturarekin batzen zuena izpiritua alegia, galduta zeukan, arrazoiaren nagusitasuna zelarik aitzakia bakarra. Zure garaikideen asmakun-

tza nabarmena, antzinako kulturekiko, teknika eta zientzia binomian arabera sortu den mundu mekaniko-arrazional-krematistikoa da, eta hortik kanpora ezer gutxi eskaintzen du, zeren giza eskubideak, ondasun gizartea, demokrazia, ez dira jatorriz mendebaldeko ekarpena, baizak eta erlijioen profanizaziaren ondorio miresgarria.

- *Beno, sentitzen dut, baino anka egin behar dut, zure jakituriak harrituta, utzi nau eta laster hemen izango naiz elkarrizketa jarraitzeko.*

- *Bai, agur, eta hurrengo arte.*

NIKOLAS ALBIZU IRASTORZA